



5. ERANSKINA: Ekintzen adibideak



1 Protesta-murala

Pandemiak klimari buruzko kaleko protestak galarazi zituenean, Amélie Zimmermann arte-ikasleak alternatiba jakin bat aurkitu zuen: bere eskolako hormetako batean horma-irudi bat pintatzea, eskola klima-aldaketaz kontzientziatzeko. «Writing's on the Wall» mugimenduaren hasiera izan zen, beste eskola batzuk beren horma-irudiak egitera bultzatu dituen.

Amélieren horma-irudia Norman Rockwell margolariaren «Jakiteko eskubidea» (1968) koadroak inspiratu zuen. Koadro horretan, estatubatuarrak gobernuaren ekintzak ulertzeko duten eskubidea adierazi zuen egileak.



NORMAN ROCKWELL MUSEUM


(Irudia: Norman Rockwell-en Jakiteko eskubidea)

Europako hainbat eskolatako ikasleek eredu horri jarraituz parte hartu dute protesta artistiko batean (ClimateAcademy-rekin). Europako Brusela II Eskolan (Belgika) dago ikasleek margotutako klimari buruzko lehen horma-irudia.



Berotze globalak gehien kaltetuko dituen pertsonen aurpegiak ikus daitezke horma-irudian (batez ere gazteak eta pobrezia-egoeran dauden pertsonak). Horma-irudiari buruz, esaldi hau dago idatzita: «Save Our Future Cut 11% of Emissions Now» (Salba dezagun gure etorkizuna, murriztu dezagun orain isuriaren % 11).

Horma-irudiak fisikaren eta kimikaren lege negoziatzinak adierazten ditu. Aurpegiek irudikatzen dituzte krisi klimatikoaren ondorio gogorrenak jasango dituzten pertsonen eskubideak. Proiektu honek Artea eta Zientzia batzen ditu gure espazio zibikoa eraldatzeko.



Horma-irudiaren mezu nagusia da gazteek beren etorkizunari eta klima-krisiari buruzko egia jakiteko eskubidea dutela.

Pintura muralaren bideoa hemen ikus dezakezu: Egungo proiektuak | [Climate Academy](#)



Errefuxiatuen aldeko ibilaldia

Munduan, ia 80 milioi pertsonak ihes egiten dute indarkeriatik, gerratik eta jazarpenetik. Distantzia handiak egiten dituzte, sarritan oinez, etxe seguru baten bila.

Irailaren 25eko errefuxiatuen ibilaldian, Flandriako leku guztietan, 10, 20 edo 40 km-ko ibilbide sinbolikoa egiten du jendeak, eta, hori egitean, dirua biltzen du mugitzen diren pertsonentzat. Ibilaldi dibertigarria da guretzat, baina eguneroko errealitatea gogorra da, haien herrialdetik ihes egiten duten pertsonentzat.

Dirua biltzeko jarduera bat antola dezakezu; adibidez, Belgikan urtero egiten den errefuxiatuentzako ibilaldiaren antzeko bat..

[Nor gara \(refugeewalk.be\)](https://refugeewalk.be)



Re Earth gizarte-baliabideen kanpaina

2020ko apirilaren 22an, mundu osoko gazte-talde bat elkartu zen Lurraren Egunean mundu-kanpaina bat antolatzeko. Kanpainak Lurraren Egunerako bi promesa klimatiko egiteko eskatu zion pertsona bakoitzari: bata banakakoa eta bestea sistemikoa. Arrakasta handia izan zuen, eta 40 herrialdetako 300.000 lagun baino gehiagotara iritsi zen. Lurraren Egunaren ondoren, bultzadari eutsi behar geniola erabaki genuen, eta horrela sortu zen Re-Earth Initiative.

Re-Earth Initiative nazioarteko GKE bat da, gazteek lideratua, eta klima-aldaketari aurre egiteko mugimendua denen eskura jartzea du helburu. Ekintza klimatikoa jende guztiarengana eraman nahi dugu. Gure ustez, justizia klimatikoak esan nahi du historian zehar baztertu direnen eta arriskuaren lehen lerroan dauden komunitateen ahotsak jasotzea. Pertsona guztien eskura egongo den eta lankidetzat sustatuko duen ingurumen-mugimenduan sinesten dugu.

Kanpainak honako hau proposatu zuen:

Argitaratu bideo bat Twitter edo Instagramen, ZURE konpromiso klimatikoa azaltzeko: bat norberarena eta bestea sistemikoa. Adibidea: Gaur konpromisoa hartzen dut nire plastiko-hondakinak ahalik eta gehien murrizteko eta nire eskola mugiarazteko erregai fosiletatik inbertsioak ken ditzan. Idatzi helbide honetara: @re.earthorg eta #MyYOurChange.



Lurraren Egunerako (apirilaren 22rako) klima-aldaketarekiko konpromiso-kanpainaren ondoren, Re-Earth ekimenak neurriak hartu ditu pertsoneri «beren konpromisoak betetzen laguntzeko, hainbat ingurumen-arazori buruzko baliabideak emanez», esaterako erreminta-kit hau eskainita: Re-EarthInitiative (fliphtml5.com)



Herriaren COP27: krisi klimatikoari buruzko istorioak

ThePeople's COP plataforma bat da, COP27 goi-bileratik baztertutako ahotsentzat. Klima-krisiaren lehen lerroetako istorioek eta online bidezko maila altuko ekitaldi orokor batek jasoko dituzte pertsona baztertuen mezuak, munduak kolapsoaren erronkei aurre nola egin behar dien erabakitzen duten politikariek aditu ditzaten.

Mundu osoko klima-krisiari buruzko istorioak biltzen ari da Environmental Justice Foundation fundazioa, esteka honetan:

[Herriaren COP27: krisi klimatikoaren istorioak \(google.com\)](https://www.google.com)

Munduko buruzagiak azaroan Egipton elkartuko den COP27 goi-bileran batzartuko dira. Urte askoan, krisi klimatikoaren lehen lerroan bizi direnen ahotsak ez dira entzun goi-mailako elkarrizketa horietan. Hori aldatu egingo da The People's COP27 ekimenarekin.

Hau da zure ahotsa plataforma global batean entzunarazteko eta klima-aldaketaren lehen lerroko bizitzaren errealitateak COP27ko hitzaldi-aretoetara eramateko aukera.

Klimaren munduko buruzagiei mezu bat bidali nahi badiezu, sartu web honetan. Idazten duzuna ThePeople's COP27 eztabaidan aurkeztuko da

azaroaren hasieran, eta hortik sortuko da herriaren COP27 manifestua.

Justizia klimatikoaren gaineko ekintza, klimaren finantzazioa eta klima-aldaketaren inpaktuen kudeaketa ez dira behar bezain azkar gauzatzen ari. Lagundu iezaguzu krisi klimatikoak lehenik eta gehien kaltetzen dituenen eskaerak benetako aldaketa ekar dezakeen lekura eramaten.

[One-Pager_The-Peoples-COP-v8.pdf \(ejfoundation.org\)](#)

Istoriok kontatzea modu sinesgarria izan daiteke jendea migratzaileen esperientziak ikusi eta haiekin enpatizatzeraz animatzeko. Hona hemen narrazioa egiteko gida:

[MigrationToolbox-Step-3.pdf \(standup4humanrights.org\)](#) (ingelesez dago. Sarrera dokumentu bat gazteleraz:

<https://standup.prz.online/migration/pdf/UN-Introduction.pdf>)

[Egiaz, batzen gaituena gehiago da bereizten gaituena baino. \(standup4humanrights.org\)](#)

(gazteleraz <https://www.standup4humanrights.org/migration/es/>).

5

Podcast

Ikasleak talde txikitik bildu ahal dira, podcast bat sortzeko. Bertan, ikastarotik interesatu zaizkien gai gakoak eztabaidatu ahal izango dituzte. Lan horrek, beharbada, ekarriko du ikerketa gehiago, podcastaren ekoizpen tekniko eta grabazioa, eta komunikazio-lana, ziurtatzeko podcast-a —eta ingurumen-aldaketari eta migrazioari buruzko ikasgaiak— eskolako ikasle gehiagorengana eta, oro har, komunitateko beste pertsona batzuek iritsiko dela.

[Klima-aldaketa, migrazio-aldaketa \(podbean.com\)](#) (ingelesez)

6

Errefuxiatu klimatikoak aintzat hartzearen eta legez babestearen alde egitea

Sortu ezazu eta ingurukoekin partekatu errefuxiatu klimatikoak aintzat hartzearen eta babestearen aldeko eskaera bat.

Adibidez, Environmental Justice Foundation-ek (EJF) errefuxiatu klimatikoaren aldeko eskaera egin zuen, eta gaiari buruzko informazioa eta gomendioak eskaintzen ditu.



English ▾

RECOGNISE CLIMATE REFUGEES



41 people every minute have been displaced by extreme weather hazards since 2008. What makes this even worse is the cruel injustice that those losing their family homes, culture and heritage overwhelmingly did the least to cause the climate crisis.

Climate refugees don't have any international legal status, or protection. Can you sign the petition calling on world leaders to change this, and protect the most basic human rights?

First name *

Last name *

Email address *

Would you like to stay in touch on the work we do? *

Yes, I want to subscribe to the newsletter

No

Take action now!

Jaehee K 26 days ago

Vee b 26 days ago

PILAR A 27 days ago

Ediane M a day ago

Katie H 9 days ago

Jehan A 9 days ago

Sinatu EJFren ekintzarako deia, juridikoki loteslea izango den nazioarteko tresna berri baten bila, «errefuxiatu klimatikoak» aitortu eta babesteko.

[Errefuxiatu klimatikoak aitortzea | EnvironmentalJusticeFoundation \(ejfoundation.org\)](https://ejfoundation.org)

7

Kausa bat bistartzeko eta defendatzeko jokia

Roi-jokoa: "No Option Except Escape: A Role Play on the Struggles of Climate Refugees" (Ihes egitea beste aukerarik ez dago: errefuxiatu klimatikoen borrokei buruzko rol-jokoa); World Oregoneko Young Leaders in Action izeneko programan afiliatutako bigarren hezkuntzako ikasleek idatzia da jokia, eta helburua da errefuxiatu klimatikoek aitortza eta babesa lortzeko aurrera eraman behar izaten dituzten borrokek erakustea. Hemen sartzen diren jardueren bidez, errefuxiatuaren legezko definizioa eta mundu osoko errefuxiatu klimatikoen egoerak ezagutzen dituzte ikasleek. Klimaren krisia dela-eta bizitza aldatu zaien sei gazteren istorioen bidez, ikasleak saiatuko

dira imajinatzen nolakoa den pertsona batentzat «ihes egin beste aukerarik ez izatea»



Rol-jokoaren xehetasunak hemen aurki ditzakezu climate-refugees-mixer.pdf (zinnedproject.org)

8

Ikerketa

Ikastaro honetako gai bat bereziki interesgarria iruditu bazaizu —adibidez, generoak ingurumen-aldaketaren eta desplazamenduen eraginean jokatzen duen papera—, talde-ikerketa bat egin dezakezu. Ikastaroko artikulu eta baliabide batzuk abiapuntu gisa erabiliz, zure taldeak gaiari buruzko iturri gehiago aurki ditzake, horiek aztertu eta emaitzak eta ondorioak txosten, kartel edo beste formatu batean azaldu. Ondoren, emaitzak erabil ditzakezu zure eskolan edo komunitatean gaiari buruzko kontzientziazioa areagotzeko, adibidez, kanpaina bat eginez sare sozialetan edo podcast bat. Emaitzak aldaketa jakin baten alde egiteko ere erabil ditzakezu, tokiko politikari bati edo parlamentuko kide bati aurkeztuz.

Gai espezifikoari buruzko baliabideak aurkitzen laguntzea nahi baduzu, jarri harremanetan JRS Europako taldearekin edo Changeko zure erreferente hurbilenarekin.